

Diru-iturriak

Gure enpresan diru sarrerak ordainketa bakarrekoak izango dira. Bezeroa produktua erostekotan ordainketa bakar batean ordaindu egingo du.

Enpresaren etekinak lortzeko zenbait proiektu antolatuko ditugu, eta hurrengoak izango dira:

- Kartelak egingo ditugu horrela gure produktua ezagunagoa izango da eta gehiago ezagutuko dute produktua. Kartelak merkataritza-lokaletan jarri egingo dira eta horretaz gain ere etxez- etxe bananduak izango dira, horrela, bezero gehiago izango ditugu.
- Iragarkiak egingo ditugu eta telebistan zein interneten argitaratuak izango dira horrela ospetsuagoa izango da produktua. Publizitate hau, umeentzat zuzendua izango da, umeak gure funtsezko bezeroak izango direlako. Edukia adinarekiko egokia izatea bilatuko dugu, horrela adinekoak (gurasoak...) produktua erostera bultzatuko ditugu.
- Ez ditugu mailegurik eskatuko, enpresako partaide bakoitzak 20.000€ minimo jarriko ditu, produktuan inbertitzeko. Diru horrekin, zergak ordaintzeaz gain publizitatea ere ordainduko dugu. Hau da telebistan iragarkiak ateratzea baita egunkarietan ere. Telebistako iragarkien prezioa 8.000€-koa da gutxi gorabehera eta egunkarian agertuko dena 4.800€ inguru. Diru honen barnean enpresaren aseguruia egongo da, ezusteko bat gerta daitekeelako.

